

Azken urteotan, aurretik aipatu izan dugun bezala, hainbat dira euskal albumak argitaratzen ari diren etxeak. Ikas argitaletxeak, esaterako, liburu kopuru urria plazaratzen badu ere, beste batzuekin alderatuta, urtero eskaintzen du itzulpenen bat edo beste eta sorkuntza lanen bat. Azken horien artean aipagarria da 2022an plazaraturiko *Izar saltzailea*. Eneko Bidegainek idatzia eta Anne Baskaranek ilustratua, *Izar saltzailea* formatu handiko album harrigarria dugu (ikus 2.44. irudia). Egileek haurrentzat eginiko lehen obra da eta zerura begiratzen liluraturik egoten zen Xuban mutikoa dugu protagonista, sosak irabazteko izarrak harrapatu eta saltzen dituen mutikoa. Ideia horretatik abiatuta, gizakion jokabidearekin, diruaren eta desiraren nahiak bultzatuta gure ingurua nola honda dezakegun ageri zaigu liburu eder honetan; hots, modu poetikoago batean baina aurretik ere aipatu izan den korronte ekologistaren baitan koka daiteke obra hau. Anne Baskaran ezaguna da zenbait kolaborazio egin dituelako aldizkari edo egunkarietan (*Berriako Mantangorri* gehigarrian esaterako) eta bere pastel-koloreekin, pertsonen aurpegiaren detaileekin, paisaia zabalekin... gozotasuna eta errealismoa islatzen ditu, biak batera.

2.44. irudia. *Izar saltzailea*

